



OSOKO KONTSEILUA  
CONSELL PLENARI  
CONSEIL PLÉNIER  
CONSELH PLENARI  
CONSEJO PLENARIO

## **PLEren XLI. Osoko Bilkura Busturia, 2023ko azaroak 27**

Okzitania eskualdeko presidentea.

Nafarroako Gobernuko presidentea.

Andorrako Gobernuko Atzerri Gaietarako ministroa, Mugaz gaindiko lankidetzarako Andorrako erakundeko presidente gisa.

Akitania Berria eskualdeko presidentea.

Aragoiko Gobernuko presidentea.

Kataluniako Generalitateko presidentea.

Eusko Jaurlaritzako lehendakaria, azken hori

Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoaren (PLE) lehendakari gisa.

### **Osoko Bilkuran bildu dira 2023ko azaroaren 27an, BUSTURIAN (Bizkaia), eta honako hau adierazten dute:**

Osoko Bilkura pozten da Pirinioetako Lan Elkartearen 40. urteurrenagatik, eta nabarmentzen du mugaz gaindiko lankidetzan sakontzen jarraitu nahi duela, bere pertsonen eta lurraldeen zerbitzura, eta Europar Batasunaren gizarte- eta lurralde-kohesioaren balioen alde egiten jarraituko duela.

Urteurren honetan, Osoko Bilkurak gogora ekarri nahi du aurreko guztien lana eta, aldi berean, haiek PLEren garapenari egindako ekarpena aintzatetsi nahi du.

Lau hamarkada hauetan, Pirinioetako Lan Elkarreak eboluzionatu egin du lankidetzaren arloan eta mugaz gaindiko kohesioa indartu du hainbat arlotan, tartean, komunikazioak, jasangarritasuna, klima-aldaketa, energia berriztagarriak, osasuna eta larrialdi medikoak, kultura eta gazterian.

Gainera, PLE Interreg-POCTEFA programaren erreferente bilakatu eta egonkortu da, hirugarren aldiz aukeratu baitu Europako Batzordeak kudeaketa-agintari. Programa honi esker, Pirinioen eta mugaz gaindiko itsasertzaren kohesiori lagundu dioten proiektuak abiarazi dira.



OSOKO KONTSEILUA  
CONSELL PLENARI  
CONSEIL PLÉNIER  
CONSELH PLENARI  
CONSEJO PLENARIO

Osoko Bilkura oso kezkatuta dago Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gerrak direla-eta, eta horien ondoriozko krisi humanitarioak direla eta, eta eskatzen du liskar guztiak amai daitezela eta nazioarteko legaltasuna errespetatzea.

Gogora ekartzen ditu, orobat, gaur egungo beste erronka handi batzuk: klima-aldaketa, trantsizio klimatiko, digital eta sozial hirukoitza eta horiek dakartzaten eraldaketak, herritarren bizitza baldintzatzen dutenak. Ildo horretan, PLEk eta bere kideek prozesu horiek bizkortzeko konpromiso are handiagoa hartzen dute; hartara, ekosistemen jasangarritasunean eta pertsonen bizi-baldintzak hobetzen laguntzeko.

Osoko Bilkurak uste du oso garrantzitsuak direla Europako Parlamentuaren hurrengo hauteskundeak –2024ko ekainean izango dira–; izan ere, Europar Batasunak erronka horiek gainditzeko laguntzeko izango duen norabide politikoa eta ekintza-batasuna markatuko dute.

PIRINIOETAKO LAN ELKARTEAK «BUSTURIKO ADIERAZPENEAN» HARTUTAKO ERABAKIAK, XLI. OSOKO BILKURAREN HARIRA

#### **PLEren Osoko Bilkura:**

- Pozten da Espainiako Erreinuak eta Frantziako Errepublikak 2023ko urtarrilaren 19an sinatu zuten Adiskidetasun eta Lankidetzaren Itunarengatik, eta eskatzen du azkar ezar dadila.
- Bereziki pozten da itun horretan berariaz aipatzen delako «mugaz gaindiko lankidetzaren», eta eskatzen du parte hartu dezala bai Mugaz Gaindiko Lankidetzaren Estrategian, bai Mugaz Gaindiko Lankidetzaren Batzordean.
- Garrantzi handia ematen dio Garapen jasangarriari, energiari, garraioei, nekazaritzari eta elikadurari buruzko Itunaren VII. tituluari, eta bere burua eskaintzen die beste behin ere Espainiako eta Frantziako gobernuei bereziki tren- eta energia-interkonektatze laguntzeko.

PLEk gogorarazten du Pirinioetako iragazkortasunaren erronka lehentasuna dela oraindik ere. Ildo horretan, Europako Batzordeari eta Frantziako eta Espainiako



OSOKO KONTSEILUA  
CONSELL PLENARI  
CONSEIL PLÉNIER  
CONSELH PLENARI  
CONSEJO PLENARIO

estatuei eskatzen die batera lan egiten jarrai dezatela, Pirinioetako erdialdeko mugaz gaindiko tren-loturen garapenean.

Halaber, eskatzen du 2030erako bete daitezela Europar Zeharreko Garraio Sarearen lehentasunezko korridoreen oinarritzko sarearen helburuak, Piriniar eremuari dagokienez.

- Adierazten du Pirinioetako hizkuntzak erabiltzen eta garatzen lagunduko duela.
- Pozten da erritmo ona lortu delako Andorraren eta Europar Batasunaren arteko elkartze-akordioaren negoziazioetan; helburua da Europar Batasuneko Kontseiluaren espainiar presidentetza bitartean amaitzea negoziazioak. Espero du aldean nahiak eta borondate onak akordio bat ekartzea, Andorrako eta EBko herritarren onurarako eta, azken batean, Pirinioetako herritarren onurarako.
- Europar Batasunari eta estatu kideei eskatzen die Mugaz Gaindiko Lankidetzako Europako Mekanismoaren (BridgEU) inguruan sakontzen eta adostasunak bilatzen jarrai dezatela, baita bere *b-solutions* ekimena gauzatzen ere, lege- eta administrazio-oztopoak konpontzeko.
- COP28n klima-aldaketaren aurrean mendialdeko ekosistemek duten zaugarritasunari buruzko nazioarteko elkarrikerria bat martxan jartzeko Andorraren ekimena babesten du, klima-aldaketaren aurkako borrokaren munduko agendan garrantzi handiagoa izan dezan.
- Pozten da 2021ean itxi ziren Pirinioetako muga-igarobide gehienak ireki direlako, baina eskatzen du lehenbailehen ireki daitezela oraindik itxita daudenak. Itxiera horiek Europar Batasunaren oinarritzko legeria eta Schengengo Hitzarmenaren espiritua urratzen dituzte eta, gainera, mugaz gaindiko herritarrei bereziki kalte egiten diete, migratzaileen sufrimendua larriagotzen dute eta lurralde-kohesioa murrizten dute.
- Pozten da, halaber, *Hidrogeno berriztagarria sustatzeko konpromisoa* sinatu delako. Helburua da hidrogenoaren ekonomia hedatzeko aukera emango duen Pirinioetako ekosistema bat sortzea, hidrogeno berriztagarria ekoitzi, garraiatu, biltegitatu eta erabiltzea sustatzeko. Horretarako, Europako eta estatuetako estrategietan



OSOKO KONTSEILUA  
CONSELL PLENARI  
CONSEIL PLÉNIER  
CONSELH PLENARI  
CONSEJO PLENARIO

zehaztutako deskarbonizazio-helburuak lortzeko lurraldeek duten posizionamendua indartuko da.

- Atseginez hartzen du Europako Batzordeak PYCASSO mugaz gaindiko proiektua Batasunaren Intereseko Proiektutzat hartu izana. Akitania Berriko Lacq inguruan karbonoa garraiatu eta biltegitratzeari buruzkoa da proiektua, eta PLEk eraginkortasunez lagundu du horretan.
- Poztasunez hartzen du 2021-2027 aldiko INTERREG POCTEFAREN lehen proiektu-deialdia kaleratu izana. 95,4 milioi euroko aurrekontua du, eta euroeskualdeek eta eremu horretako lurralde-lankidetzako Europako taldeak parte hartzen dute. Horrek esan nahi du, bada, lurraldearen onurarako batera lan egiteko asmoa dagoela, programaren 5. helburu politikoaren (*Herritarrengandik hurbilago dagoen Europa*) testuinguruan batik bat. PLEk berresten du aktiboki parte hartu nahi duela Europako Batzordearen lanetan: bai 2027aren osteko programazio-aldiari dagozkionetan, bai, zehazki, kohesioari buruzko 8. txostenean.
- Garrantzitsutzat jotzen du LIFE PYRENEES4CLIMA proiektua lortzea. 20 milioi euroko zuzkidura du, 7 urte baino gehiagoko iraupena du eta Pirinioetako lurralde guztietako 55 erakunde hartzen ditu barne. Proiektu horrek beste dimentsio batean kokatuko du PLE-KAPB, eta aukera emango dio Klima Aldaketaren Pirinioetako Estrategia anbiziotsua abiarazteko.
- PLEk mugaz gaindiko espazioko gizarte zibilak bereizgarri dituen balioekin –gizarte-, kultura- eta hizkuntza-balioak, batik bat– duen konpromisoa berresten du.
- Beste behin dio mugaz gaindiko lankidetzak indartu beharra dagoela, bai mugaz gaindiko herritarren mesederako diren lurralde-kohesioeko politika garatzeko, bai egungo trantsizio energetiko, digital eta sozialaren erronkei erantzuteko.



OSOKO KONTSEILUA  
CONSELL PLENARI  
CONSEIL PLÉNIER  
CONSELH PLENARI  
CONSEJO PLENARIO

**Carole Delga andrea**  
Okzitania eskualdeko presidentea

**Alain Rousset jauna**  
Akitania Berria eskualdeko presidentea

**María Chivite Navascués andrea**  
Nafarroako Gobernuko presidentea

**Jorge Antonio Azcón Navarro jauna**  
Aragoiko Gobernuko presidentea

**Imma Tor i Faus andrea**  
Andorrako Gobernuko Atzerri Gaietarako  
ministra, Mugaz gaindiko lankidetzarako  
Andorrako erakundeko presidente gisa.

**Pere Aragonès i Garcia jauna**  
Kataluniako Generalitateko presidentea

**Iñigo Urkullu Renteria jauna**  
Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria,  
Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoaren (PLE) presidente gisa